Posteriormente, tras la aprobación inicial del PGOU por el pleno del ayuntamiento, el 22 de diciembre de 2022, se procedió a abrir un periodo de exposición pública que se alargó hasta el 31 de marzo de 2023. Se recibieron un total de 18 alegaciones (13 dentro de plazo y 5 fuera del mismo).

Asimismo, se remitió el documento de aprobación inicial y el estudio ambiental estratégico a las administraciones públicas afectadas para que emitieran los informes que estimaran pertinentes. Informaron 21 administraciones, algunas de las cuales ya habían respondido a las consultas realizadas por la Dirección General de Administración Ambiental previamente a la emisión del documento de alcance.

Entre la documentación remitida por el ayuntamiento para la emisión de la presente declaración ambiental estratégica, se incluye el informe de respuesta a las alegaciones e informes presentados.

Respecto a las alegaciones, en el mismo consta que, la mitad de las presentadas no se aceptaron, 2 ni se aceptaron ni se rechazaron, sino que por su contenido se remitieron al ayuntamiento para que adoptara las decisiones que considerara oportunas, y el resto –7–, fueron total o parcialmente aceptadas. Respecto a la implicación ambiental de los cambios introducidos en el documento de aprobación inicial como consecuencia de las alegaciones total o parcialmente aceptadas, se puede destacar lo siguiente:

— Ampliación de las instalaciones actuales de Bodegas Katxiña. En respuesta a las necesidades planteadas en la alegación realizada por los propietarios, en la ficha urbanística particular para este ámbito en SNU, se permite un incremento de edificabilidad de 1.680 m²(t). En el análisis que realiza el estudio ambiental estratégico dicha ampliación, se concluye que, los impactos son compatibles excepto los correspondientes a la ocupación y artificialización del suelo y la afección a la vegetación que los califica como moderados. No se afecta a zonas protegidos ni a suelos de alto valor agrológico y en cuanto a la vegetación, se impacta sobre una superficie muy reducida del hábitat de interés comunitario 6510 Prados pobres de siega de baja altitud.

— Reajuste del régimen de zonificación global de terrenos situados en el entorno de Botaleku. A fin de adecuar dicho régimen a la situación actual de los terrenos, se modifica, para una pequeña superficie alrededor del caserío Eizmendi, su zonificación, pasando de G.3 Forestal a G.4.2 Paisaje Rural de Transición a fin de permitir su uso como huerta en la parte más llana de la parcela.

En cuanto a los informes presentados por las administraciones interesadas, se puede resaltar la introducción de los siguientes cambios con implicaciones ambientales en el documento de aprobación inicial:

— Subdirección General de Dominio Público Marítimo Terrestre. Para responder a lo indicado en el informe de este organismo, se han introducido una amplia variedad de modificaciones en el documento de aprobación inicial, entre las que se pueden citar: la eliminación de los ámbitos 10.1 Hotel Antilla y 12. Txurruka, la modificación de la delimitación de los ámbitos 2. Mutiozabal y 15. Ortzaika, clasificando como SNU los terrenos situados en DPMT, y la corrección de las propuestas de zonificación global y pormenorizadas de los ámbitos 5. Aramendi-Toki alaia, 13. Arocena y 15. Ortzaika.

EK\CV GAO-I-2025-05537

— Uraren Euskal Agentzia.Uholde-arriskuak eragindako eremuen arau partikularretan, plan hidrologikoaren zehaztapenak sartu dira uholde-arriskuko eremuaren erabilera-mugei buruz –45. art.– eta urbanizatu beharreko eremu berrien drainatzeari buruz –48. art.–. Bestalde, kontuan hartu da Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren txostena, egungo sistemek hornidura- eta saneamendu-eskari berriei zerbitzua emateko duten gaitasuna justifikatzen duena, eta 12. Dike eta 13. Arocena Eremuetako Arau Partikularretan ezarri da ingurunean dauden ur-hornidurako eta saneamenduko sare orokorrekin behar bezala lotu beharra.

— Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza. Arau orokorrak berrikusi dira, honako alderdi hauei dagokienez: G.4.1.1 Balio estrategiko handia (ILJP) eta G.4.1.2 Balio estrategiko handia eremuetako eraikuntza-araubidea; eta nekazaritzako eraikuntzak eta instalazioak hartzeko lurzatiaren gutxieneko azalera birdoitu da, legez ezarritako gutxieneko ustiapen-unitatera egokitzeko.

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza. Aldaketak egin dira lurzoru urbanizaezinaren antolamenduan, Oriaren itsasadarreko KBE Kontserbazio Bereziko Eremuari dagokionez. Hala, gainjarritako baldintzatzailea sartu da: CS.9.7. Hezeguneak. Oria ibaia, eta haren araubide orokorra zehaztu da. Era berean, Arkumetegiko urmaelaren hirigintza-araubideari dagokionez (hezeguneen LPSko III. taldeko hezegunea), G.2 Ingurumen-hobekuntza eremuaren barruan sartzen dena, haren hirigintza-araubidea birdoitu da, ingurumen-hobekuntzako proposamenak egokitzat jotzen diren biodibertsitatea babesteko neurriekin osatzeko beharra sartzeko. Azkenik, Mendizorrotzeko errekei dagokienez, CS.2 Kontserbazio Bereziko Eremuak gainjarritako baldintzatzaileari lotzen zaizkie, eta erregulazio-araubide propioa definitzen da erreka horientzat baldintza horren barruan –LAGetan Azpiegitura berdea gainjarritako baldintzatzailearentzat ezarritakoa–.

Udalaren ustez, jendaurrean jartzeko aldiko alegazio eta txostenen ondorioz egindako aldaketek ez zuten funtsezko aldaketarik eragin hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduan, eta ez zen aldatu proposatutako eta hasieran onetsitako plangintza eredua; beraz, behin-behineko dokumentua onartu zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Antolamendu Batzordeari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuari bidali zitzaien.

3.2. Ingurumen azterketa estrategikoaren balorazioa eta irismen dokumentuaren edukiak sartzea.

HAPO behin-behinean onartzeko dokumentuak ingurumen azterketa estrategiko bat (IAE) du, eta horren edukiak bat datoz ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean eskatutakoekin eta Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritakoekin. Era berean, ingurumen organoak emandako irismen dokumentuan ezarritako eskemari jarraituz egin da ingurumen azterketa estrategikoa, eta, oro har, dokumentu horretan eskatutako funtsezko ingurumen edukiak jorratzen ditu.

IAEren 2. apartatua planaren edukiari eta helburuei buruzkoa eta beste plan eta programa batzuekin duen harremanari buruzkoa da eta behar bezala aztertu eta sakondu ditu irismen dokumentuaren 3. apartatuan planteatutako edukiak. Era berean, ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuen karakterizazioak (4. apartatua) udalerri osoko ingurumen elementu garrantzitsuenak deskribatzen eta ezaugarritzen ditu, bai eta arrisku faktoreak ere, naturalak zein jarduera antropikotik eratorritakoak, ondoren ebaluazio egoki bat egiteko. Hala ere, ingurumen azterketa estrategikoak ez du jasotzen jarduketa esanguratsue-

— Agencia Vasca del Agua. En las Normas Particulares de los ámbitos afectados por el riesgo de inundabilidad, se han incorporado las determinaciones del plan hidrológico sobre limitaciones de uso en zona inundable –art. 45– y el drenaje en las nuevas áreas a urbanizar –art. 48–. Por otro lado, se ha tenido en cuenta el informe de Gipuzkoako Ur Kontsortzioa que justifica la capacidad de los sistemas existentes para dar servicio a las nuevas demandas de abastecimiento y saneamiento y, establecido en las Normas Particulares de los ámbitos 12. Dike y 13. Arocena la obligación de su correcta conexión con las redes generales de abastecimiento de agua y de saneamiento existentes en el entorno.

— Dirección de Agricultura y Ganadería del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco. Se han revisado las Normas Generales en lo que se refiere a los siguientes aspectos: el régimen de edificación en las zonas G.4.1.1. Alto valor estratégico (DPMT) y G.4.1.2 Alto valor estratégico y se ha reajustado la superficie mínima de la parcela receptora de construcciones e instalaciones agrarias para ajustarla a la unidad mínima de explotación establecida legalmente.

— Dirección del Patrimonio Natural y Cambio Climático del Gobierno Vasco. Se han introducido modificaciones en la ordenación del SNU en lo que se refiere a la Zona de Especial Conservación ZEC de la ría del Oria. Así, se ha incorporado el condicionante superpuesto: CS.9.7. Zona Húmeda. Ría del Oria y se ha determinado su régimen general de regulación. Asimismo, en cuanto al régimen urbanístico de la Charca de Arkumetegi (zona húmeda del grupo III del PTS de zonas húmedas) que se incluye dentro de la zona G.2 Mejora ambiental, se ha reajustado su régimen urbanístico, para incluir la necesidad de que las propuestas de mejora ambiental se complementen con la determinación de las medidas de preservación de la biodiversidad que se estimen adecuadas. Finalmente, en cuanto a los arroyos de Mendizorrotz, se les vincula al condicionante superpuesto CS.2 Áreas de Conservación Especial y se define un régimen de regulación propio para estos arroyos dentro de dicho condicionante –el establecido en las DOTs para el condicionante superpuesto Infraestructura verde–.

El ayuntamiento consideró que los cambios introducidos como consecuencia de las alegaciones e informes del periodo de exposición pública no habían supuesto un cambio sustancial en la ordenación estructural inicialmente prevista y tampoco se había modificado el modelo de planeamiento propuesto y aprobado inicialmente, por lo que se procedió a la aprobación del documento provisional elaborado y se procedió a su remisión a la Comisión de Ordenación del País Vasco y al Departamento de Sostenibilidad de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

3.2. Valoración del estudio ambiental estratégico e incorporación de los contenidos del documento de alcance.

El documento de aprobación provisional del PGOU incorpora un estudio ambiental estratégico (EsAE) cuyo contenido se ajusta a lo exigido en el anexo II del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica, y lo que establece el anexo IV de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental. Asimismo, el EsAE se ha elaborado siguiendo el esquema establecido en el documento de alcance emitido por el órgano ambiental y aborda, en general, los contenidos ambientales fundamentales solicitados en dicho documento.

El apartado 2 del EsAE referente al contenido y objetivos del plan, así como a su relación con otros planes y programas, ha considerado y profundizado convenientemente en los contenidos planteados en el apartado 3 del documento de alcance. Asimismo, la caracterización de los aspectos relevantes de la situación actual del medio ambiente (apartado 4), describe y caracteriza los elementos ambientales más importantes de todo el municipio, así como los factores de riesgo, tanto naturales como derivados de la actividad antrópica, de cara a llevar a cabo, posteriormente, una adecuada evaluación. Sin embargo, el EsAE no

EK\CV GAO-I-2025-05537

nak aurreikusten diren eremu bakoitzaren ingurumen-deskribapen xehatua, irismen-dokumentuan eskatzen zen bezala; aitzitik, ingurumen-baldintzatzaile esanguratsuenak dituzten plano batzuk baino ez ditu jasotzen.

IAEaren alternatibak hautatzeko eta hartutako irtenbidea justifikatzeko prozesuari dagokionez (3. apartatua), HAPOan planteatutako bizitegi-garapen berrien eta jarduera ekonomikoen alternatiben ingurumen-azterketa egiten da. Azterketa horretan, hainbat ingurumen-faktore hartzen dira kontuan, besteak beste: lurzoruaren okupazioa, fauna, landaredia eta naturagune babestuak, eta ingurumen-arriskuak, hala nola zarata edo uholde-arriskua.

Alternatiben azterketa horretan aztertzen diren eremuen artean, jarraian horietako birentzako lortutako ondorioetan sakonduko da, hain zuzen ere Irismen Dokumentuan ingurumenaren aldetik arazotsutzat jotako kokagune eta jarduketentzat (IDEaren 5. atala):

* Palotaseko bizitegi-garapena. Aurrerapenean, 3 alternatiba proposatu ziren; horietatik 2k eremu osoa –2. alternatiba– edo eremuaren erdia bakarrik –3. alternatiba– lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzea eta lehentasunez bizitegi-erabileretarako erabiltzea zekarten, eta 1ek, berriz, lurzoru urbanizaezin gisa mantentzen zuen. Irismen Dokumentuaren arabera, ingurumenaren ikuspegitik, lurzoru horien urbanizazioa bizitegi-erabilerarako baztertu beharko litzateke. Behin-behineko onespenaren dokumentuan eta haren ingurumen-azterketa estrategikoan, laugarren alternatiba bat planteatzen da. Bertan, lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako eremuaren zatirik handiena mantentzea proposatzen da, baina, hego-ekialdeko ertzean, 3.344 m² hiri-lurzoru gisa sailkatzen ditu, eta 6.1 azpieremuan (Erribera kalearen luzapena) sartzen du. Sailkapen horren helburua hiriguneko mugikortasuna hobetzea da, Erribera kalea Hondartzako bideko biribilgunearekin lotuko duen bide bat proposatuz. Gainera, ekipamendu publikorako eraikin bat eraikitzea proposatzen du, sestra gaineko 4.200 m² (t)-ko eraikigarritasunarekin. Azken aukera horren azterketak ondorioztatzen du sortuko dituen ingurumen-inpaktu guztiak bateragarriak izango direla, Hezeguneen LPSko Oriako itsasadarreko A1 G4 hezeguneari eragiteari dagokionez izan ezik; izan ere, eremu hori nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko kategoriaren barruan sartzen du, eta neurrizkotzat jotzen du. Era berean, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostenaren aurrean, zeinetan erakunde horrek faltan ematen baitu, ingurumen-azterketa estrategikoan, Erribera Kalearen luzapena 6.1 azpieremua hiri-lurzoru gisa birsailkatzearen eta Hezeguneen LPSaren erabilera-araubidearen arteko bateragarritasunaren azterketa, HAPOan jasotako administrazioen alegazioei eta txostenei erantzuteko txostenak argudiatzen duenez, proposatutako garapen txiki hori Orioko hiri-ingurunearen mugakide da, eta haren hazkunde mugatu eta puntuala dakar, zeinaren bidez behar bezala errematatzen baita haren konfigurazioa. Ondorioz, ondorioztatzen du lehendik zeuden guneetan oinarritutako hazkundetzat har daitekeela, eta, beraz, onargarria dela hezeguneen LPSko nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko antolamendu-kategorian; beraz, proposamen horri eustea erabaki da.

* Aizperron jarduera ekonomikoak garatzea. Eremu hori lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta dago jarduera ekonomikoetarako poligono berri bat ezartzeko 2007ko Arau Subsidiarioak onartu zirenetik, eta, oraindik garatu gabe dagoen arren, dagoeneko onartuta dauden plan partzial bat eta urbanizatzeko jarduketa-programa bat ditu. Irismen-dokumentuak, ingurumen-inpaktuak ikusita, hiri-bilbetik bereizita baitago eta ez baitator bat Urola Kostako LPPn ezarritako antolamenduarekin, komenigarritzat jotzen zuen hura eraikitzeko aukera berriz aztertzea. Era berean, hasierako onespenaren ondorengo kontsultan Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak emandako txostenean nabarmentzen zen Aizperro garatzea ez datorrela bat indarrean dagoen Zarautz-Azpeitiko LPPn aurreikusitakoarekin, eta, beraz, sektore hori lurzoru urbanizagarri gisa kalifikatzea berriz aztertzea planteatzen zen, nahiz eta al-

incluye una descripción ambiental detallada de cada una de las áreas donde se prevén las actuaciones más significativas, tal y como se requería en el documento de alcance, sino que se limita a incluir unos planos con sus condicionantes ambientales más significativos.

Respecto al proceso de selección de alternativas y justificación de la solución adoptada del EsAE (apartado 3), se realiza un análisis ambiental de las alternativas de los nuevos desarrollos residenciales y de actividades económicas planteadas en el PGOU. En dicho análisis se tienen en cuenta una larga serie de factores ambientales que incluye entre otros: la ocupación del suelo, la fauna, vegetación y espacios naturales protegidos y riesgos ambientales como el ruido o la inundabilidad.

De entre las áreas que se estudian en dicho análisis de alternativas, se profundizará a continuación en las conclusiones que se obtienen para dos de ellas, precisamente las que en el Documento de Alcance se consideraron como Localizaciones y Actuaciones ambientalmente problemáticas (apartado 5 del DAE):

* Desarrollo residencial en Palotas. En el avance, se proponían 3 alternativas, 2 de las cuales suponían la clasificación como suelo urbanizable de la totalidad del ámbito –alternativa 2– o solo de la mitad del mismo –alternativa 3– y su destino a usos preferentemente residenciales, mientras que la 1 mantenía este suelo como no urbanizable. El Documento de Alcance consideraba que, desde el punto de vista ambiental, se debería descartar la urbanización de estos suelos para su destino a usos residenciales. En el documento de aprobación provisional y en su estudio ambiental estratégico, se plantea una cuarta alternativa, en la que se propone mantener la mayor parte del ámbito clasificado como suelo no urbanizable, pero, en su margen sureste, clasifica 3.344 m² como suelo urbano y lo incluye en el subámbito 6.1 Prolongación de la calle Erribera. El objetivo de dicha clasificación es mejorar la movilidad en el casco urbano proponiendo un vial que conecte la calle Erribera con la rotonda de Hondartzako Bidea. Además, propone la construcción de un edificio para uso de equipamiento público con una edificabilidad sobre rasante de 4.200 m²(t). El análisis de esta última alternativa concluye que todos los impactos ambientales que producirá serán compatibles excepto, en su afección al humedal A1 G4 Ría del Oria del PTS de Zonas Húmedas, que incluye este ámbito dentro de la categoría de agroganadera y campiña y que lo valora como moderado. Asimismo, ante el informe de la Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático en el que dicho organismo echa en falta, en el estudio ambiental estratégico, el análisis de la compatibilidad de la reclasificación como suelo urbano del subámbito 6.1 Erribera Kalearen luzapena con el régimen de usos de PTS de Zonas Húmedas, el informe de respuesta a las alegaciones e informes de las administraciones incluido en el PGOU argumenta que, este pequeño desarrollo propuesto colinda con el medio urbano de Orio y supone un crecimiento limitado y puntual del mismo mediante el cual se remata de manera adecuada su configuración. En consecuencia, concluye que puede ser considerado como un crecimiento apoyado en núcleos preexistentes, y, por tanto, admisible en la categoría de ordenación agroganadera y campiña del PTS de humedales, por lo que se opta por mantener dicha propuesta.

* Desarrollo de actividades económicas en Aizperro. Este ámbito está clasificado como suelo urbanizable para la implantación de un nuevo polígono para actividades económicas desde la aprobación de las NNSS de 2007 y, aunque todavía sigue sin desarrollar, cuenta con un plan parcial y un programa de actuación urbanizadora ya aprobados. El Documento de Alcance, vistos sus impactos ambientales, que está desligado de la trama urbana y que no es acorde con la ordenación establecida en el PTP de Urola Kosta, consideraba conveniente que se volviera a reconsiderar la oportunidad de su construcción. Asimismo, en el informe emitido por la Dirección de Planificación Territorial y Agenda Urbana del Gobierno Vasco en la consulta tras la aprobación inicial, se ponía de relieve que, el desarrollo de Aizperro, no es acorde con lo previsto en el vigente PTP de Zarautz-Azpeitia, por lo que se planteaba la reconsideración de la calificación como suelo

EK\CV GAO-I-2025-05537

derdi horren azken balorazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak HAPOa behin betiko onartu aurretik egin beharreko txostenera eraman. Behin-behineko onespen-dokumentuaren ingurumen-azterketa estrategikoan, bi aukera planteatzen dira: bata, onartutako plan partziala finkatzea ekarriko lukeena, eta, bestea, eremu horretan garapenik ez egitea proposatzen duena. Nahiz eta ondorioztatzen duen 1. alternatibak inpaktu moderatuak izango lituzkeela, besteak beste, lurrazaleko ur-ibilguetan, intereseko landaredian, paisaian eta zaratan, eta bateragarriak intereseko faunan eta mugikortasunean eta irisgarritasunean, proposamen hori mantendu egiten da HAPOan. Hasierako onespenaren ondorengo kontsultan Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak egindako txostenari dagokionez HAPOan jasotako administrazioen alegazioei eta txostenei erantzuteko txostenean azaldutakoa kontuan hartzen bada, honela laburbil daiteke planaren idazleek ekimen horri eusteko egindako justifikazioa:

— Hiri-ingurunearen kalitatea hobetzeko HAPOaren interes publikoko helburuei erantzutea, HAPOan hirigintza-birkalifikazioaren mende dauden azpieremuetan eraikinak okupatu dituzten edo okupatzen dituzten jarduerak birkokatzea ahalbidetuz, jarduera ekonomikoen erabilerak bizitegi-erabilerara edo ekipamenduetara aldatuz. Hala, honako eremu hauek aipa daitezke: 1.2 Sotoak, 2.1 Aita Lertxundi 48-50 eta 13.1 Arocena Cerámica. Era berean, hiri-ingurunearen beste zati batzuetan kokatutako jarduera ekonomikoak birkokatzea ahalbidetzea, baldin eta HAPOaren proiekzio-horizontean hiri-berroneratzea sustatzeko edo bideragarri egiteko atera behar badira. Azkenik, gaineratu du proposamen hori bat datorrela LPPan bertan planteatutako hiri-berroneratzeko helburuekin, Cerámica Arocena bezalako jarduera ekonomikoetako eremuak bizitegi-garapenetara bideratzearekin lotutakoak barne.

— Orion industria-jarduera berriak edo baliokideak ezartzeko aukera ematea.

— Orioko AP-8 autobidearen erdi-lotunearen ondoan dagoenez, Aizperro leku egokia da jarduera horiek ezartzeko.

5. atalean, IAEk behar bezala identifikatu eta baloratzen ditu HAPOaren aplikaziotik espero daitezkeen ingurumen aldagaien gaineko inpaktu gehienak, argudiatzeko modu batean eta matrizeen bitartez. Azterketa hori lurzoru mota bakoitzerako modu zehatzean egiten da:

— Lurzoru urbanizaezinean, kontuan hartzen da, alde batetik, HAPOak barne hartzen duen kategorizazio-proposamena, eta, bestetik, lurzoru urbanizaezinean definitu diren bost eremuak, bai eta komunikazio-azpiegituren hobekuntza ere –Oria ibaiaren gaineko zubia, Anibarko portutik Motondoko N-634 errepidearen saihesbidetik, AP-8 errepidearen gaineko oinezkoentzako zubia, Donejakue bideari jarraipena emateko, eta AP-8 zubitik zintzilik Oria ibaiaren bi ertzak lotzen dituen oinezkoentzako pasabidea–. Azterketaren amaieran, proposatutako lurzoru urbanizaezinaren antolamendua oso positibotzat jotzen da, udalerriari balio naturala ematen dioten elementuak eta espazioak integratu baitira, hierarkian gorago dauden lurralde-antolamenduko tresnetan ezarritako kategoria eta baldintzatzaile gainjarrien arabera. Lurzoru urbanizaezinean egin beharreko jarduketa txikiei dagokienez, ingurumen-azterketa estrategikoak inpaktu negatiboak bateragarritzat edo moderatutzat jotzen ditu gehienbat, salbu eta Sarikola 18.5 eremuko uholde-arriskua, larria baita, haren azalera handi bat 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuaren barruan geratzen baita. Nolanahi ere, hirigintza-fitxan, A eraikinaren eraikigarritasuna baldintzatzen da eragiten dioten uholde-arriskuei erantzun egokia emateko, betiere gai horretan eskumena duen administrazioak horri buruz zehazten dituen aurreikuspenen arabera.

urbanizable de dicho sector, aunque trasladaba la valoración final de dicho aspecto al informe a emitir por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco con carácter previo a la aprobación definitiva del PGOU. En el estudio ambiental estratégico del documento de aprobación provisional, se plantean dos alternativas: la 1 que supondría la consolidación del plan parcial aprobado y 2 en la que se propone no llevar a cabo ningún desarrollo en este ámbito. Aunque concluye que la alternativa 1, tendría impactos moderados, entre otros sobre los cursos de aguas superficiales, la vegetación de interés, el paisaje y el ruido y compatibles sobre fauna de interés y la movilidad y accesibilidad, se mantiene esta propuesta en el PGOU. Si se atiende a lo expuesto en el informe de respuesta a las alegaciones e informes de las administraciones incluido en el PGOU en relación con el informe emitido por la Dirección de Planificación Territorial y Agenda Urbana del Gobierno Vasco en la consulta tras la aprobación inicial, la justificación de los redactores del plan para el mantenimiento de esta iniciativa se podría resumir como sigue:

— Dar respuesta a objetivos de interés público del PGOU de mejora de la calidad del medio urbano al permitir la relocalización de actividades que han ocupado u ocupan edificaciones en subámbitos que se someten a recalificación urbanística en el PGOU, cambiando sus usos de actividades económicas a residenciales o de equipamientos. Se pueden citar así los ámbitos de: 1.2 Sotoak, 2.1 Aita Lertxundi 48-50 y 13.1 Arocena Cerámica. Igualmente, permitir la reubicación de actividades económicas situadas en otras partes del medio urbano y que deban salir para incentivar y/o viabilizar su regeneración urbana en el horizonte de proyección del PGOU. Finalmente, añade que esta propuesta coincide con los objetivos de regeneración urbana planteados en el propio PTP incluidos los relacionados con el destino a desarrollos residenciales de ámbitos de actividades económicas tales como Cerámica Arocena.

— Posibilitar la implantación en Orio de nuevas actividades industriales o equivalentes.

— Su ubicación junto al semi-enlace de la AP-8 EN Orio hace que Aizperro sea un emplazamiento adecuado para la implantación de dichas actividades.

En el apartado 5, el EsAE identifica y valora convenientemente, de un modo argumentativo y a través de matrices, la mayoría de los impactos de la aplicación del PGOU sobre las distintas variables ambientales esperables. Este análisis se realiza de una forma particularizada para cada tipo de suelo:

— En el SNU, se tiene en cuenta, por un lado, la propuesta de categorización que incluye el PGOU y, por otra, los cinco ámbitos que se han definido en suelo no urbanizable, así como, la mejora de las infraestructuras de comunicación –el puente sobre río Oria desde el puerto de Anibar hasta Motondo de la variante de la carretera N-634, el puente peatonal sobre la AP-8 para dar continuidad al camino de Santiago y la pasarela peatonal que colgando del puente AP-8 une las dos márgenes de la ría del Oria–. El análisis concluye considerando muy positiva la ordenación del suelo no urbanizable propuesta ya que se han integrado los elementos y espacios que aportan valor natural al municipio, todo ello de acuerdo con las categorías y condicionantes superpuestos establecidos en los instrumentos de ordenación territorial jerárquicamente superiores. Respecto a las pequeñas actuaciones en SNU, el estudio ambiental estratégico califica los impactos negativos como mayoritariamente compatibles o moderados, si exceptuamos el riesgo de inundación en el ámbito 18.5 Sarikola considerado como severo ya que una superficie importante del mismo queda dentro del riesgo de inundación para los periodos de retorno de 10, 100 y 500 años. De todas formas, en la ficha urbanística, se condiciona la edificabilidad en el edificio A a que se consiga dar una adecuada respuesta a los riesgos de inundabilidad que le afectan, y siempre de acuerdo con las previsiones que a ese respecto determine la administración competente en la materia.

EK\CV GAO-I-2025-05537

— Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian, proposatutako bizitegitarako eta jarduera ekonomikoetarako garapenak kontuan hartuta. Ingurumen-azterketa estrategikoak, oro har, positibotzat jotzen ditu lurzoruaren okupazioaren, kontsumoaren eta artifizializazioaren gaineko inpaktuak; izan ere, ez du landa-lurzoruaren okupazioa handitzen indarrean dagoen plangintzarekin alderatuta, 6.1 azpieremua (Erribera kalearen luzapena) izan ezik, baina inpaktu onargarria dela uste du, kokapena, eragindako azalera txikia eta helburua kontuan hartuta –zonako ibilgailuen trafiko-arazoak konpontzea–. Gainerako inpaktuak bateragarritzat edo moderatutzat jotzen dira, eremu hauei lotutako arriskuak izan ezik: 2.2 Aita Lertxundi 42, 12. Dike eta 13. Cerámica Arocena; 17. Aizperro eremuari dagokionez, lurrazaleko eta lurpeko urei dagozkienak, eta obrak egin bitartean nahiz martxan egon bitartean hondakinak sortzen dituztenak, gogortzat jotzen dira. Uholde-arriskuei dagokienez, hirigintza-fitxetan jasotzen da Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan arlo horretan ezarritako aurreikuspenak betetzeko betebeharra. Aizperro eremuko inpaktuei dagokienez, lurrazaleko eta lurpeko uren gaineko afekzioen kasuan, Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPSan ezarritako atzerapenak errespetatu beharko dira.

Era berean, azterlanaren eranskinen artean, inpaktu espezifikoen balorazioa dago, zehazki honako hauei dagokienez: nekazaritza sektorea eta Jasangarritasun energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Nekazaritza-sektorearen gaineko eraginari dagokionez, inpaktua txikia izango dela ondorioztatzen da, eta LPSaren arabera udalerriko balio estrategiko handiko lurzoruaren % 0,5i soilik eragingo diola, 6.1 Erribera kalearen luzapena eremua dela eta. Gainera, balorazio horretan, kontuan hartzen da HAPOak balio estrategiko handiko lurzoruak babestu dituela, eta, adibidez, Oria ibaiaren erriberan eta inguruko muino eta hegal leunetan 49.6 ha kalifikatu dituela «Balio estrategiko handia» kategorian, hau da, lurzoru urbanizaezinaren % 5,4. Nekazaritza-ustiategien gaineko eraginari dagokionez, eragin handiena 17. Aizperro eremuan izango da; urbanizatzen denean, larreen eta baso-lurren 4,7 ha-ri eragingo die –partzelaren azalera osoaren % 86–. Larre-erabilerako 4,58 ha galtzeak, batez ere eremu horretan, udalmugarteko erabilera horretara bideratutako azaleraren % 2,65i eragiten dio, eta ingurumen-azterketa estrategikoak garrantzitsutzat jotzen ez badu ere, konpentsazio-neurriak hartzea proposatzen du. Ildo horretan, konpentsazio-neurri pare bat barne hartzen ditu: nekazaritza-jarduerei eustea sustatzea, antolamendu berriak horretarako aukera ematen badu, eta konpentsazio ekonomikoa baloratzea.

Bestalde, jasangarritasun energetikoaren azterketan, energia berriztagarrien, mugikortasunaren eta udalaren energia kontsumoaren kontrolaren arloko jarduketak azaldu ondoren, zenbait neurri orokor azaltzen dira, aurreikusitako hirigintza garapenek jasangarritasun energetikoaren irizpideak betetzen dituztela bermatzeko, energia berriztagarrien erabilera sustatzeko, kanpoko argiteria publiko efizientea eta inpaktu txikikoa ezartzeko eta mugikortasun jasangarria bultzatzeko.

Bidalitako dokumentazioaren artean, halaber, 2022ko abenduko bi azterketa akustiko daude, bat «Orioko udalerriko HAPOren ingurumen-zarataren azterketa eta bestea Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretua betetzea: Zarata-mapak eta eragindako biztanleenak egitea, eta beste bat, 13. Cerámica Arocena eremurako espezifikoa.

Lehen azterketa akustikoari dagokionez, bertan eremu akustiko mota hauek zonifikatzeko proposamena egiten da:

a. Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-eremuak edo sektoreak.

b. Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-eremuak edo sektoreak.

— En suelo urbano y urbanizable, teniendo en cuenta los desarrollos residenciales y de actividades económicas propuestos. El estudio ambiental estratégico califica, en general, como positivos los impactos sobre la ocupación, consumo y artificialización del suelo, ya que no se incrementa la ocupación del suelo rural respecto al planeamiento vigente con la única excepción del subámbito 6.1 Prolongación de la calle Erribera, aunque considera su impacto aceptable, dada su ubicación, pequeña superficie afectada y su objetivo –resolución de los problemas de tráfico rodado en la zona–. El resto de los impactos son calificados como compatibles o moderados, excepto los asociados a riesgos de inundación en las áreas 2.2 Aita Lertxundi 42, 12. Dike y 13. Cerámica Arocena, y, en el caso del ámbito 17. Aizperro, los correspondientes a aguas superficiales y subterráneas y los de generación de residuos tanto durante las obras como en funcionamiento, que se consideran severos. Respecto a los riesgos de inundabilidad, se incluye en las fichas urbanísticas la obligación de cumplir las previsiones establecidas en la materia en el Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental. En cuanto a los impactos en el ámbito de Aizperro, en el caso de las afecciones sobre las aguas superficiales y subterráneas, se deberán respetar los retiros establecidos en el PTS de Ordenación de Ríos y Arroyos.

Asimismo, se incluye, entre los anexos del estudio, la valoración de impactos específicos, en concreto sobre los siguientes: el sector agrario y, según lo dispuesto en el art. 7 de la Ley 4/2019, de 21 de febrero, sobre sostenibilidad energética.

Respecto al impacto sobre el sector agrario, se concluye que el impacto será poco significativo, afectando solo a un 0,5 % del suelo de alto valor estratégico del municipio según el PTS debido al ámbito 6.1 Prolongación de la calle Erribera. Además, en esta valoración, se tiene en cuenta que el PGOU ha protegido suelos de alto valor estratégico, calificando, por ejemplo, en la ribera del Oria y en las colinas y laderas suaves del entorno, 49.6 ha en la categoría «Alto Valor estratégico» lo que supone un 5.4 % del suelo no urbanizable. En cuanto a la afección a explotaciones agrarias, la mayor se producirá en el ámbito 17. Aizperro, que, cuando se urbanice, afectará a 4,7 ha de pastizales y tierras forestales –el 86 % de la superficie total de la parcela–. La pérdida de 4,58 ha de uso de pasto, principalmente en esa área supone la afección al 2,65 % de la superficie destinada a este uso en el término municipal, que, aunque el estudio ambiental estratégico lo considera como no significativa, si propone la adopción de medidas compensatorias. En este sentido, incluye un par de medidas compensatorias: fomentar el mantenimiento de las actividades agrarias siempre que la nueva ordenación lo permita y valorar la compensación económica.

Por su parte, en el estudio de sostenibilidad energética, tras exponer las actuaciones en energías renovables, movilidad y control del consumo municipal de energía, se exponen una serie de medidas generales para garantizar que los desarrollos urbanísticos previstos cumplan con los criterios de sostenibilidad energética, promuevan el uso de energías renovables y la implantación de alumbrado público exterior eficiente y de bajo impacto, e impulsen la movilidad sostenible.

Entre la documentación remitida, se encuentran, asimismo, dos estudios acústicos de diciembre de 2022, uno denominado «Estudio de ruido ambiental del PGOU del municipio de Orio y cumplimiento del Decreto 213/2012, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco: Elaboración de mapas de ruido y población afectada y otro, específico para el ámbito 13. Cerámica Arocena.

En cuanto al primer estudio acústico, en éste se realiza una propuesta de zonificación por los siguientes tipos de áreas acústicas:

a. Ámbitos/sectores con predominio de suelo de uso residencial.

b. Ámbitos/sectores con predominio de suelo de uso industrial.

EK\CV GAO-I-2025-05537

c. C motakoa ez den hirugarren sektoreko erabilera nagusi duten esparru/sektoreak: Orioko aterpetxeari dagokiona.

d. Erabilera-lurzorua nagusi den eta garraio-azpiegituren sistema orokorrei edo horiek behar dituzten beste ekipamendu publiko batzuei eragiten dieten esparru edo sektoreak: Orioko portua.

Zonakatze hori ez dator bat IV.2 Eremu akustikoak eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak planoan ezarritakoarekin, non bi baldintzatzaile gainjarriek –CS.7 Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak eta CS.8 Eremu akustikoak– eragindako eremuak irudikatzen baitira. Izan ere, plano horretan c eremu akustikoaren irudikapena falta da, Orioko aterpetxea bizitegi-kategoriaren barruan sartzen baita, eta d eremu akustikoari dagokionez, Orioko portua eta errepideak barne hartzen baititu.

Ondoren, diagnostiko akustiko bat egin da, eta, bertan, orain zein etorkizunean inpaktu handiena sortzen duten zarata-fokuak identifikatu dira, batez ere AP-8 eta N-634 errepideak. Jarraian, bi azterlanen artean, HAPOan proposatutako garapen berri hauen antolamendu-alternatiben azterketa akustikoa egiten da: AU1.2 Sotoak, AU.2.1 Aita Lertxundi 48-50, AU3.1 Eusko Gudari 36-38-40-42, AU3.2 Kaia kalea 5, 3.3 Arrantzale kalea 1 orubea, AU6.1 Erriberaren luzapena, AU12. Dike eta AU.13 Arocena.

Azkenik, emaitzak kontuan hartuta, irtenbide akustiko posibleak aztertuko dira, baldin eta, eremu gehienetan gertatzen den bezala, kalitate akustikoaren helburuak gainditzen badira. Bi azterlan horien azken ondorioak honela laburbil daitezke:

— AU6.1 Erriberaren luzapena. Eraikiko den ekipamendu-eraikinak babes berezia behar duen kultura-erabilera izan nahi badu, ez dira betetzen kalitate akustikoaren helburuak. 213/2012 Dekretuaren 45. artikuluaren arabera, eremu hori ezin denez Babes Akustiko Bereziko Eremu izendatu, eraikitzeko lizentzia eman ahal izateko, beharrezkoa izango da azterketa akustikoan proposatutako zuzenketa-neurriak hartzea edo «behar bezala arrazoitutako interes publikoko salbuespenezko arrazoiak» justifikatzea.

— Aztertutako gainerako eremuetan, 45. artikuluko baldintzak betetzen dituzte Babes Akustiko Bereziko Eremu izendatzeko; beraz, eraikuntza-lizentzia eman aurretik, halakotzat jo beharko dira, zonako plan bat ezarri beharko da eta barneko espaziorako Kalitate Akustikoko Helburuak bete beharko dira.

Bestalde, ingurumen-azterketa estrategikoan, ustiapen-faseko inpaktu akustikoaren azterketa jasotzen da eremu gehigarri hauetan: Aita Lertxundi 16, 7.1 Kabi-alay/Uri berri, 8.1 Munto P-2, 14.1 Anibarko portua 37. eta 17. Aizperro.

Hala ere, ez da zarataren azterketarik egiten ez bi azterketa akustikoetan, ez ingurumen-azterketa estrategikoan, garapen berriko eremu hauetan: 3.4 Arrantzale kalea, 2. orubea eta 3.5 Eusko Gudarien kalea 26; beraz, eremu horiek ere aztertzeko azterketa akustikoa osatu beharko litzateke.

IAEn (6. atala) jasotzen diren ingurumen integrazioko neurriak (prebentziozkoak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak) egokiak dira, baina horietako asko irizpide edo jarraibide orokor gisa formulatzen dira, eta plangintza xehatuak edo ondorengo urbanizazio eta eraikuntza proiektuek zehaztu edo garatu beharko dituzte. Gainera, azterlanaren 8. atalean, bideragarritasun ekonomikoari buruzko txosten bat jasotzen da. Txosten horretan, neurri zuzentzaileen kostua kalkulatzen da, eta halakotzat hartzen dira, funtsean, eremu batzuk garatzeko dokumentuei erantsiko zaizkien paisaia integrazioko, integrazio hidraulikoko, akustikoko eta lurzoruen kalitateko azterlanak. Era berean, Orioko azpiegitura berdearen ekintza-plan bat garatzeko aurrekontua egin da.

IAEk apartatu espezifiko bat du (7. atala) planaren ondorioen ingurumen zaintzako programa definitzeko. Bertan, kontrol multzo bat ezartzen da. Kontrol horien artean dago egiaztatzea ga-

c. Ámbitos/sectores con predominio del uso terciario distinto al tipo c: correspondiente al albergue de Orio.

d. Ámbitos/sectores con predominio de suelo de uso afectados a sistemas generales de infraestructuras de transporte u otros equipamientos públicos que los reclamen: correspondiente al puerto de Orio.

Esta zonificación no coincide con la establecida en el Plano IV.2 Áreas acústicas y suelos potencialmente contaminados donde se representan las áreas afectadas por ambos condicionantes superpuestos –CS.7 Suelos potencialmente contaminados y CS.8 Áreas acústicas–. En efecto, en dicho plano falta la representación del área acústica c, ya que el albergue de Orio se mete dentro de la categoría residencial y, en cuanto al área acústica d incluye tanto el puerto de Orio como las carreteras.

Posteriormente, se incluye un diagnóstico acústico en el que se identifican los focos de ruido que mayor impacto generan tanto ahora como en el futuro, destacando principalmente la AP-8 y la N-634. A continuación, entre ambos estudios, se lleva a cabo un análisis acústico de las diferentes alternativas de ordenación de siguientes nuevos desarrollos propuestos en el PGOU: AU1.2 Sotoak, AU.2.1 Aita Lertxundi 48-50, AU3.1 Eusko Gudari 36-38-40-42, AU3.2 Kaia Kalea 5, 3.3 Arrantzale kalea 1 solar, AU6.1 Prolongación de Erribera, AU12. Dike y AU.13 Arocena.

Finalmente, teniendo en cuenta los resultados, se procede a hacer un análisis de las posibles soluciones acústicas si, como ocurre en la mayor parte de los ámbitos, se superan los objetivos de calidad acústica. Las conclusiones finales de ambos estudios se pueden resumir como siguen:

— AU6.1 Prolongación de Erribera. En el caso de que el edificio de equipamiento que se construya se quiera destinar a un uso cultural que requiera especial protección no se cumplen los objetivos de calidad acústica. Dado que, según el artículo 45 del Decreto 213/2012, este ámbito no se puede declarar Zona de Protección Acústica Especial, para poder conceder la licencia de edificación, será necesario adoptar las medidas correctoras propuestas en el estudio acústico o justificar «razones excepcionales de interés público debidamente motivadas.».

— En el resto de los ámbitos analizados, sí cumplen las condiciones del artículo 45 para ser declaradas Zona de Protección Acústica Especial, por lo que, antes de conceder la licencia de edificación, se les deberá declarar como tal, establecer un plan zonal y cumplir los Objetivos de Calidad Acústica para el espacio interior.

Por su parte, en el estudio ambiental estratégico, se incluye el análisis del impacto acústico en fase de explotación de los siguientes ámbitos adicionales: Aita Lertxundi 16, 7.1 Kabi-alay/Uri berri, 8.1 Munto P-2, 14.1 Anibarko portua 37. y 17. Aizperro.

Sin embargo, no se realiza un análisis del ruido ni en los dos estudios acústicos ni en el estudio ambiental estratégico en los siguientes ámbitos de nuevo desarrollo: 3.4 Arrantzale kalea, solar 2 y 3.5 Eusko Gudarien kalea 26, por lo que se debería completar el estudio acústico para analizar también estas áreas.

La batería de medidas de integración ambiental (preventivas, correctoras y compensatorias) que se recogen en el EsAE (apartado 6) son adecuadas, si bien muchas de ellas se formulan en forma de criterios o directrices generales que requerirán ser concretadas o desarrolladas por el planeamiento pormenorizado o por los proyectos de urbanización y edificación posteriores. Además, en el apartado 8 del estudio, se incorpora un informe de viabilidad económica en el que se calcula el coste de las medidas correctoras, entendiendo como tal, básicamente, los estudios de integración paisajística, hidráulicos, acústicos y de calidad de suelos que se incorporarán a los documentos de desarrollo de algunas de las áreas. Asimismo, se presupuesta el desarrollo de un Plan de acción de la infraestructura verde de Orio.

El EsAE cuenta con un apartado específico (apartado 7) para definir el programa de vigilancia ambiental de los efectos del plan, donde se establecen un conjunto de controles, que incluyen

EK\CV GAO-I-2025-05537

rapen dokumentuek –garapen plangintza eta urbanizazio eta eraikuntza proiektuak– erakunde eskudunek xedatutakoa betetzen dutela eta beharrezko dokumentazio eta azterlan espezifiko guztiak jasotzen dituztela, bai eta ingurumen ebaluazio estrategikoan ezarritako prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurriak ere. Era berean, kontrolak egingo dira obrak gauzatzeko fasean. Azkenik, hainbat ingurumen-alderditarako jarraipen-adierazle batzuk definitzen dira –lurzoruaren erabilera jasangarria, biodibertsitatea, baliabideen kontsumoa eta abar–, eta, kasu batzuetan, irismen-dokumentuaren 9. apartatuan proposatzen zirenak dira. IAEaren 8. atalean (bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena) ez da zaintza programaren aurrekonturik jasotzen, ezta gutxi gorabeherakorik ere.

Azkenik, azterlanak, dagokion kartografiaz gain, HAPOaren laburpen ez-tekniko bat du (IV. eranskina).

3.3. Orioko HAPOan ingurumen-alderdiak txertatzearen balorazioa.

Orioko HAPOak Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean zehaztutako ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar du. Prozedura horren esparruan, Ingurumen Administrazioko Zuzendaritza Nagusiak emandako irismen dokumentuak HAPO egitean kontuan hartu beharreko ingurumen alderdiak zehaztu zituen, bai eta ingurumen azterketa estrategikoak izan behar zituen edukiak ere.

HAPO behin-behinean onesteko dokumentua eta irismen dokumentuan adierazitako ingurumen alderdien txertatze maila aztertuta, egiaztatu da, oro har eta apartatu honetan aipatuko diren alderdi batzuk alde batera utzi gabe, antolamenduak behar bezala integratu dituela ingurumen alderdi horiek, bai udalerrian dauden interes bereziko baliabideak eta espazioak babesteari dagokionez, bai hiri antolamenduan eta lurzoruaren sailkapenean ingurumen jasangarritasuneko irizpideak onartzeari dagokionez.

Hala, egiaztatu da hiri-antolamendua baldintza dezaketen ingurumen- eta jasangarritasun-irizpideak prozesuaren lehen faseetatik hartu direla kontuan, zehazki HAPOaren helburu estrategikoen definiziotik bertatik, eta, oro har, azkenean garatutako antolamendu-proposamenen diseinuari aplikatu zaizkio.

Ildo horretan, oso positiboki nabarmendu behar da HAPOak garapen berriak hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarrietara mugatzeko egiten duen apustua, hiri-ingurunea berroneratzeko eta berritzeko jarduketak sustatuz, baina bi salbuespenekin: 6.1 azpieremua, Erribera kalearen luzapena, eta itsasadarraren ertza hiri-lurzoru gisa sailkatzea 9. Azkue eta 11. Kaia eremuen artean dagoen tartean. Lehenengoari dagokionez, baloratu behar da behin-behinean onartutako antolamenduak nabarmen murrizten duela Usotegien Sektorea izenekoarentzat hasiera batean proposatutako alternatibetan planteatutako okupazioa, hiri-egituratik hurbilen dagoen eremura mugatzen baitu, udalerriaren ingurune horretan hiriko bide-sarea behar bezala konfiguratzea helburu hartuta. Bigarrenari dagokionez, hirigintza-plangintza errealitatera egokitzea da kontua, tarte horretan itsasadarreko pasealekua existitzen baita dagoeneko.

Hala ere, ezin da aipatu gabe utzi 17. Aizperro eremuan indarrean dagoen hirigintza-plangintzan aurreikusitako industria-garapenaren finkapena. Indarrean dauden arau subsidiarioetan lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta badago ere, lurzoru urbanizaezinaren benetako egoera du; izan ere, denbora igaro den arren, industrialde hori ez da garatu. Irismen-dokumentuan argudiatzen zen bezala, poligono hori eraikitzeko aukera berrikusi beharko litzatekeela uste da oraindik ere.

la comprobación de que los documentos de desarrollo –planeamiento de desarrollo, así como proyectos de urbanización y de edificación– cumplen con lo dispuesto por los organismos competentes y contienen toda la documentación y estudios específicos necesarios, así como las medidas preventivas, correctoras y compensatorias establecidos en la evaluación ambiental estratégica. Igualmente, se incorporan controles durante la fase de ejecución de obras. Finalmente, se definen una serie variada de indicadores de seguimiento para diferentes aspectos ambientales –uso sostenible del suelo, biodiversidad, consumo de recursos, etc.–, que, en algunos casos, son los que se proponían en el apartado 9 del documento de alcance. En el apartado 8 del EsAE (Informe de viabilidad económica), no se incluye un presupuesto, aunque sea aproximado, del programa de vigilancia.

Por último, el estudio cuenta, además de con la correspondiente cartografía, con un resumen no técnico del PGOU (anexo IV).

3.3. Valoración de la integración de los aspectos ambientales en el PGOU de Orio.

El PGOU de Orio se encuentra sometido al procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria definido en la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental. En el marco de dicho procedimiento, el documento de alcance emitido por la Dirección General de Administración Ambiental determinó los aspectos ambientales a tener en cuenta en la elaboración del PGOU, así como los contenidos que debía tener el estudio ambiental estratégico.

Analizado el documento de aprobación provisional del PGOU y el grado de incorporación de los aspectos ambientales señalados en el documento de alcance, se comprueba que, en general y sin menoscabo de algunos aspectos que se mencionarán a lo largo de este apartado, la ordenación ha integrado adecuadamente dichos aspectos ambientales, tanto en relación a la protección de los recursos y espacios de especial interés presentes en el municipio, como en la asunción de criterios de sostenibilidad ambiental en la ordenación urbana y la clasificación del suelo.

Así, se comprueba que los criterios ambientales y de sostenibilidad que pueden condicionar la ordenación urbana se han considerado ya desde las primeras fases del proceso, en concreto desde la propia definición de los objetivos estratégicos del PGOU, y, en general, se han aplicado, posteriormente, al diseño de las propuestas de ordenación finalmente desarrolladas.

En este sentido, hay que destacar muy positivamente la apuesta que hace el PGOU de restringir los nuevos desarrollos a a suelos ya urbanos o urbanizables, potenciando las actuaciones de regeneración y renovación del medio urbano, aunque con 2 excepciones: el subámbito 6.1 prolongación de la calle Erribera y la clasificación como suelo urbano del borde de la ría en el tramo situado entre los ámbitos 9. Azkue y 11. Kaia. Respecto al primero, hay que valorar que la ordenación aprobada provisionalmente disminuye notablemente la ocupación planteada en las alternativas inicialmente propuestas para el denominado Sector Palotas, restringiéndola a la zona más cercana al entramado urbano y teniendo como fin buscar la correcta configuración de la red viaria urbana en ese entorno del municipio. En cuanto a la segunda, se trata de la adecuación del planeamiento urbanístico a la realidad, ya que el paseo de la ría ya existe en la realidad en ese tramo.

Sin embargo, no se puede dejar de citar la consolidación del desarrollo industrial previsto en el planeamiento urbanístico vigente en el ámbito 17. Aizperro. Aunque está clasificado como suelo urbanizable en las NNSS vigentes, su estado real es de suelo no urbanizable ya que, a pesar del tiempo transcurrido, no ha llegado a desarrollarse este polígono industrial. Tal y como ya se argumentaba en el Documento de Alcance, se sigue considerando que debería revisarse la oportunidad de la construcción de este polígono.

EK\CV GAO-I-2025-05537

Bestalde, interesgarritzat jotzen da, halaber, HAPOak hiri-inguruneetan erabilerak nahastearen eta mugikortasun jasangarria sustatzearen aldeko apustua egitea, Gipuzkoako bizikleta-bideen LPPko hiriarteko bizikleta-bideen sarea txertatuz, zeinari oinezkoen eta bizikleten hiri-sare bat gehitzen baitzaio, bai eta lurzoru urbanizaezinean oinezkoentzako sare bat definitzea ere, zeinak AP-8 autobidearen gainetik pasabide bat proposatzea barne hartzen baitu, Donejakue Bidearen trazadura jarraitua eta arrazoizkoa berreskuratzeko.

Lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari dagokionez, kategorizazio bat proposatu da, goragoko plangintzaren gidalerroei erantzuteko ez ezik, ingurumen elementu baliotsuenak babesteko ere. Kategoria horien erabilera-araubidea 2.1 Hirigintza Arau Orokorrak dokumentuaren 21. artikuluan zehazten da. Gainera, kategorizazioa 9 baldintzatzaile gainjarriren diseinuarekin osatzen da. Baldintzatzaile horien erregulazio-araubidea Hirigintza Arau Orokorren IV. tituluan ezartzen da.

Azkenik, ingurumen-azterketa estrategikoa Orioko HAPOko 1. dokumentua («Memoria») osatzen duen dokumentazioaren barruan sartu da, eta dokumentu horri ez zaio izaera arauemailea ematen hirigintza-arau orokorren 3. artikuluan. Hala ere, 2.2 Hirigintza-arau partikularrak dokumentuan, izaera arauemailea dutenak, zehazki hirigintza-fitxa bakoitzaren VIII. Ingurumen-neurriak azpiatalean, ingurumen-alderdi desberdinekin lotutako neurriak sartu dira –airearen kalitatea, hondakinen kudeaketa, etab.–. Neurri horiek 1.3 Ingurumen-azterketa estrategikoa dokumentuan zehaztutakoak direla esaten bada ere, ez datoz bat dokumentu horretan ezarritakoekin. Era berean, 2.1 Hirigintza Arau Orokorrak dokumentuaren barruan, neurri babesleak eta zuzentzaileak sartzen dira dokumentu horren atalen batean, hala nola Seigarren Ordenantza Tituluko Ingurumena Babesteko Ordenantzen Bosgarren Kapituluan, non ingurumena babesteko zenbait irizpide eta neurri definitzen diren. Irizpide eta neurri horiek, berez zuzenak izan arren, lotura dute ingurumen azterketa estrategikoko neurri babesle eta zuzentzaileekin, baina ez dira neurri horien transposizio zehatza. Gomendagarria litzateke ingurumen-azterketa estrategikoaren eta 2.1 Hirigintza Arau Orokorrak eta 2.2 Hirigintza Arau Partikularrak dokumentuen artean kontraste-lan bat egitea, dokumentu horietan jasotako ingurumen-irizpideak eta -neurriak hobeto bateratzeko. Horrek errazagoa egingo luke HAPOa garatzeko ondorengo tresnetan erabat eta egoki txertatzen direla kontrolatzea.

Azken batean, ondorioztatzen da ingurumen-azterketa estrategikoak eta HAPOaren hirigintza-dokumentuek ingurumenaren aldetik positiboak diren helburuak, irizpideak eta jarduketak jasotzen dituztela, eta, oro har, ingurumen-elementu eta -baldintzatzaile nagusiak kontuan hartu dituztela erabileren antolamendua eta erregulazioa diseinatzean, bai maila globalean, bai hirigintza-antolamenduko eremu bakoitzerako. Hala ere, berriro pentsatu beharko litzateke 17. Aizperro eremuan industria-sektore bat garatzeko proposamena. Era berean, gomendagarria litzateke IAEan eta 2.1 Hirigintza Arau Orokorrak eta 2.2 Hirigintza Arau Bereziak dokumentuetan jasotako ingurumen-neurriak bateratzeko ahalegina egitea.

Azkenik, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 6. artikuluan eta abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 66.2 artikuluan xedatutakoa aplikatu behar denez, eta urriaren 1eko 29/2024 Foru Dekretuan oinarrituta, Jasangarritasun Departamentua da ingurumen adierazpen estrategiko hau egiteko organo eskuduna, Gipuzkoako Foru Aldundiak baitu HAPO hau onartzeko eskumen substantiboa.

Beraz, aurretik azaldutakoarekin bat etorriz, eta planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 13. artikuluan eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko

Por otra parte, también se considera de interés, la apuesta del PGOU por la mezcla de usos en entornos urbanos y el impulso de la movilidad sostenible con acciones como la incorporación de la red interurbana de vías ciclistas del PTP de vías ciclistas de Gipuzkoa al que se suma una red urbana peatonal y ciclista, así como la definición de una red peatonal en SNU, que incluye la propuesta de una pasarela por encima de la autopista AP-8 para recuperar el trazado continuado y razonable del Camino de Santiago.

En cuanto a la ordenación del SNU, se ha propuesto una categorización que no solo pretende responder a las directrices del planeamiento superior, sino, también, proteger los elementos ambientales más valiosos. El régimen de uso de estas diferentes categorías se detalla en el artículo 21 del documento 2.1 Normas Urbanísticas Generales. Además, la categorización se complementa con el diseño de 9 condicionantes superpuestos cuyo régimen de regulación se establece en el título IV de las Normas Urbanísticas Generales.

Finalmente, el estudio ambiental estratégico se ha integrado dentro de la documentación que constituye el denominado documento 1 «Memoria» del PGOU de Orio, documento al que no se le da un carácter normativo en el artículo 3 de las Normas Urbanísticas Generales. Sin embargo, en el Documento 2.2. Normas Urbanísticas particulares, que sí tiene un carácter normativo, concretamente en el subapartado VIII Medidas de carácter ambiental de cada una de las fichas urbanísticas, se han incluido medidas relacionadas con diferentes aspectos ambientales –calidad del aire, gestión de residuos, etc.– que, aunque, se dice que son las determinadas en el documento 1.3 Estudio Ambiental Estratégico, no coinciden con las establecidas en dicho documento. Igualmente, dentro del Documento 2.1 Normas Urbanísticas Generales, se introducen medidas protectoras y correctoras en alguno de sus apartados, tales como en el Capítulo Quinto Ordenanzas de Protección Ambiental del Título Sexto Ordenanzas, en el que se definen una serie de criterios y medidas de protección ambiental. Estos criterios y medidas son correctos en sí, y tienen algunas conexiones con las medidas protectoras y correctoras del estudio ambiental estratégico, pero no son exactamente una transposición de las mismas. Sería recomendable que se hiciera un trabajo de contraste entre el estudio ambiental estratégico y los documento 2.1 Normas Urbanísticas Generales y 2.2 Normas Urbanísticas Particulares para conseguir una mayor unificación entre los criterios y medidas ambientales incorporados en estos documentos lo que haría más sencillo el control de su incorporación plena y adecuada en los instrumentos posteriores de desarrollo del PGOU.

En definitiva, se concluye que el EsAE y los documentos urbanísticos del PGOU incorporan unos objetivos, criterios y actuaciones positivas ambientalmente y que han tenido en cuenta, en general, los principales elementos y condicionantes ambientales durante el diseño de la ordenación y regulación de los usos tanto a nivel global como para para cada ámbito de ordenación urbanística. Sin embargo, habría que repensarse la propuesta de desarrollar finalmente un sector industrial en el ámbito 17. Aizperro. Asimismo, sería recomendable que se hiciera un esfuerzo para unificar las medidas ambientales incluidos en el EsEA y en los documentos 2.1. Normas Urbanísticas Generales. y 2.2 Normas Urbanísticas Particulares.

Finalmente, resultando de aplicación lo dispuesto en el artículo 6 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, y el artículo 66.2 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, y, en base al Decreto Foral 29/2024, de 1 de octubre, el órgano competente para la emisión de la presente declaración ambiental estratégica es el Departamento de Sostenibilidad, ya que la competencia sustantiva para la aprobación de este PGOU reside en la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Por tanto, de acuerdo con todo lo anteriormente expuesto, y en cumplimiento de lo previsto en el artículo 13 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y progra-

EK\CV GAO-I-2025-05537

abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 25. artikuluan aurreikusitakoa betez, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren ingurumen adierazpen estrategiko hau egin da, honako baldintza hauetan:

Lehenengoa.Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari buruzko ingurumen-adierazpen estrategiko hau egitea.

*Bigarrena.* Ingurumen adierazpen estrategiko honetako xedapenak Plana osatzen duten dokumentuen dagozkien ataletan txertatuko dira. Era berean, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuaren 13. artikuluaren 4. atala betez, dokumentu bat egin eta onartu beharko da, eta GFAko Ingurumen Administrazioko Zuzendaritza Nagusiari igorriko zaio, integrazio hori nola egin den islatuz.

*Hirugarrena.* Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra osatzen duten eta eraginpean dauden dokumentuak egokitu egin beharko dira, honako zehaztapen hauei erantzuteko:

A. 2.1 Hirigintza Arau Orokorrak dokumentuan berrikusi beharreko zehaztapenak.

— Abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen irailaren 22ko 515/2009 Dekretuari egindako erreferentziak ordeztuko dira dekretu hori ordeztu duen dekretu berriarekin: 50/2025 Dekretua, otsailaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena.

— CS.6 Intereseko landaredia baldintzatzaile gainjarria. Baldintza horrekin babestuko dira Oriaren itsasadarrean sakabanatuta dauden eta ingurumen-azterketa estrategikoan flora mehatxatua berreskuratzeko eremu gisa identifikatzen diren eremuak –4.8 4 apartatua eta I.5 planoa, Azterlan horretako interes bereziko landaredia–.

— 174. art. Natura intereseko ondarea babesteko araubidea. Artikulu horretan ezartzen denez, 2.3 Katalogoa dokumentuan, hainbat motatako balio ekologikoengatik lurraldeko elementu bereziak eta ordezkaezinak diren eta zorrotz zaindu behar diren enklabe naturalak sartzen dira. Katalogoa berrikusi ondoren, ez da aurkitu enklabe naturalen zerrendarik. Artikulu hori mantentzearen komenigarritasuna berrikusi beharko da, edo egiaztatu zerrenda hori existitzen den eta akats baten ondorioz katalogoan sartu ez den.

— IV.2 planoa. Kutsatuta egon daitezkeen eremu akustikoak eta lurzoruak. Plano hori berrikusiko da CS.8 Eremu akustikoak baldintzatzaile gainjarriaren irudikapenari dagokionez, haren zonifikazioa bat etor dadin HAPOaren behin-behineko onespenaren dokumentazioan jasotako ingurumen-zarataren azterketan ezarritakoarekin.

B. 2.2 Hirigintza Arau Partikularrak dokumentuan berrikusi beharreko zehaztapenak.

— 17. Aizperro. Orioko Udalak garapen horri eusten dio, nagusiki, hiri-lurzoruan kokatutako industria-jarduerak birkokatzeko premian oinarrituta, baina ez du argi zehazten zer azalera beharko litzatekeen berroneratze-prozesu horiei erantzuteko, eta, beraz, ezinezkoa da zehaztea aurkeztutako proposamenak benetako eskari bati erantzuten dion ala ez. Gainera, behin-behineko onespen-dokumentuaren ingurumen-azterketa estrategikoari dagokionez, industria-garapen horren alternatiben azterketa bat egiten bada ere, oso mugatua da, dena edo ezer ez motakoa, eta ez da planteatzen, adibidez, dagoeneko urbanizatuta dagoen edo hurbil dagoen lurzoruan integratutako beste kokapen-alternatiba batzuk, ziurrenik Aizperro eremuan hautemandakoak baino inpaktu txikiagoak eragingo lituzketenak. Azkenik, udalaz gaindiko plangintzak ere ez du garapen hori babesten. Aurreko guztia ikusita, irismen-dokumentuan azaldu zen bezala, oraindik ere komenigarri-

mas y en el artículo 25 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, tras el análisis de la documentación presentada por la presente se emite la declaración ambiental estratégica del Plan General de Ordenación Urbana de Orio, en los siguientes términos:

*Primero.* Emitir la presente Declaración Ambiental Estratégica respecto al Plan General de Ordenación Urbana de Orio.

*Segundo.* Las determinaciones de esta Declaración Ambiental Estratégica se integrarán, en los apartados pertinentes de los documentos que componen el Plan. Asimismo, en cumplimiento del apartado 4 del artículo 13 del Decreto 211/2012 por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, se deberá elaborar y aprobar un documento, que se remitirá a esta Dirección General de Administración Ambiental de la DFG, en el que se refleje cómo se ha realizado dicha integración.

*Tercero.* Los distintos documentos que conforman el Plan General de Ordenación Urbana de Orio que se vean afectados, deberán de readaptarse para dar respuesta a las siguientes determinaciones:

A. Determinaciones a revisar en el documento 2.1 Normas Urbanísticas Generales.

— Las referencias al Decreto 515/2009, de 22 de septiembre por el que se establecen las normas técnicas, higiénico-sanitarias y medio ambientales de las explotaciones ganaderas del articulado, se sustituirán por el Decreto que le ha sustituido: Decreto 50/2025, de 25 de febrero por el que se establecen las normas higiénico-sanitarias y medioambientales de las explotaciones ganaderas en Euskadi.

— Condicionante superpuesto CS.6 Vegetación de Interés. Se protegerá con este condicionante las áreas dispersas en la ría del Oria que en el estudio ambiental estratégico se identifican como zonas de recuperación de flora amenazada –apartado 4.8 4 y plano I.5 Vegetación de especial interés de dicho estudio–.

— Art 174. Régimen de protección del patrimonio de interés naturalístico. En este artículo se establece que se incluye en el documento 2.3 Catálogo, los enclaves naturales que por sus valores ecológico de diverso tipo constituyen elementos singulares y no sustituibles del territorio, que deben preservarse de manera estricta. Revisado el catálogo, no se ha encontrado ningún listado de enclaves naturales. Se deberá revisar la conveniencia de mantener este artículo o comprobar si tal listado existe y no se ha incluido por error en el catálogo.

— Plano IV.2 Áreas acústicas y suelos potencialmente contaminados. Se revisará dicho plano en lo que se refiere a la representación del condicionante superpuesto CS.8 Áreas acústicas para que su zonificación coincida con la establecida en el estudio del ruido ambiental incluida entre la documentación de aprobación provisional del PGOU.

B. Determinaciones a revisar en el documento 2.2 Normas Urbanísticas Particulares.

— 17. Aizperro. El ayuntamiento de Orio mantiene este desarrollo en base, principalmente, a la necesidad de relocalización de actividades industriales situadas en suelo urbano, pero no define claramente qué superficie sería necesaria para responder a estos procesos de regeneración, con lo cual es imposible establecer si la propuesta presentada responde a una demanda real. Además, en cuanto al estudio ambiental estratégico del documento de aprobación provisional, aunque se hace un análisis de alternativas de este desarrollo industrial, éste es muy limitado, del tipo todo o nada, sin plantearse, por ejemplo, otras alternativas de ubicación integradas en suelo ya urbanizado o próximas al mismo y que, seguramente, producirían unos impactos inferiores a los detectados en el ámbito Aizperro. Finalmente, este desarrollo tampoco está respaldado por la planificación supramunicipal. A la vista de todo lo anterior, y tal y como

EK\CV GAO-I-2025-05537

tzat jotzen da eremu hori abian jartzeko aukera berrikustea, eta, berroneratzeko industria-lurzoruaren benetako eskaria egonez gero, dauden premien azterketa zorrotza egin beharko litzateke, eta egungo hiri-bilbearekin hain lotuta ez dauden beste kokapen-alternatiba batzuk bilatu. Aurreko guztia ikusita, eta irismen-dokumentuan azaldu zen bezala, ingurumenaren eta lurralde-jasangarritasunaren ikuspegitik, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak ez luke sektore hori kontuan hartu behar.

C. Ingurumen azterketa estrategikoa. Alderdi hauetan sakondu beharko da:

— Inguruneko zarataren azterketa. Garapen berriko bi eremu hauen ingurumen-zarataren azterketa egingo da: 3.4 Arrantzale kalea, 2. orubea eta 3.5 Eusko Gudarien kalea 26, eta beharrezko babes- eta zuzenketa-neurriak ezarriko dira.

— Prebentzio, zuzentze eta konpentsazio neurriak. Baterako lan bat egin beharko dute hirigintza-arau orokorrak eta partikularrak idatzi dituztenek eta ingurumen-azterketa estrategikokoek, babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurrien proposamena hiru dokumentuen artean bateratzeko, erraz aplikatu eta kontrolatu ahal izateko HAPOtik eratorritako jarduketen garapen osoan. Bestalde, Hirigintza Arau Partikularren kasuan, komenigarria litzateke aplikatu beharreko neurri zuzentzaile orokorren zerrenda luze bat sartzea baino gehiago, igorritako dokumentuan egiten den bezala, eremu horren inpaktu garrantzitsuenei eta ezaugarriei erantzuteko diseinatutako ingurumen-neurrietan zentratzea, ikus, adibidez, uholde-arriskua, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, zarata, etab. Zerrenda horri, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak aplikatzeko betebeharraren aipamen orokor bat gehituko litzaioke, bai eta IAEaren zaintza-plana ere. Zehazteko ahalegin hori bereziki garrantzitsua izango litzateke garapen-plangintzarik gabeko egikaritze-eremuen kasuan.

*Laugarrena.* Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuaren arabera, udalak kontuan izan behar du, HAPO onartu ondoren, honako jakinarazpen hauek egin behar dizkiola GFAko Ingurumen Administrazioko Zuzendaritza Nagusiari:

— Dekretu horretako 15. artikuluan xedatutako dokumentazioa bide elektroniko bidez eskuragarri dagoela. Artikulu hori betez, jakinarazpen hori eragindako administrazio publikoei, publiko interesdunari eta publiko orokorrari ere zabalduko zaie.

— HAPOren jarraipen programa abian jartzearen ondorioz, ingurumen inpaktuaren ebaluazio estrategikoan aurreikusi gabeko ondorio kaltegarriak detektatzen badira, ondorio horiek minimizatzeko proposatutako neurriak, dekretu horren 16. artikulua betez.

*Bosgarrena.* Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen adierazpen estrategiko hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

*Seigarrena.* Ingurumen adierazpen estrategiko horrek indarraldia galduko du, eta utzi egingo dio dagozkion ondorioak izateari, baldin eta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, gehienez ere bi urteko epean ez bada plan edo programa hori abian jarri edo onartu.

Donostia, 2025eko uztailaren 9a.—José Ignacio Asensio Bazterra, Jasangarritasuneko foru diputatua. (5537)

ya se expuso en el documento de alcance, se sigue considerando que desde el punto de vista ambiental y de la sostenibilidad territorial, el Plan General de Ordenación Urbana de Orio no debería de contemplar este sector.

C. Estudio Ambiental Estratégico. Se deberá profundizar en los siguientes aspectos:

— Estudio del ruido ambiental. Se realizará un análisis del ruido ambiental de los siguientes dos ámbitos de nuevo desarrollo: 3.4 Arrantzale kalea, solar 2 y 3.5 Eusko Gudarien kalea 26, y se establecerán las medidas protectoras y correctoras necesarias.

— Medidas preventivas, correctoras y compensatorias. Se deberá hacer un trabajo conjunto entre los redactores de las Normas Urbanísticas generales y particulares y los de estudio ambiental estratégico para conseguir unificar la propuesta de medidas protectoras, correctoras y compensatorias entre los tres documentos a fin de facilitar su fácil aplicación y control durante todo el desarrollo de las actuaciones que emanen del PGOU. Por otra parte, en el caso de las Normas Urbanísticas Particulares, sería conveniente que, se optara más que por incluir un largo listado de medidas correctoras generales de aplicación como se hace en el documento remitido, por centrarse en aquellas medidas ambientales diseñadas para responder a los impactos más importantes y características del ámbito en cuestión, véase, por ejemplo, inundabilidad, suelos potencialmente contaminados, ruido, etc. A dicha relación, se añadiría, una mención general a la obligación de aplicar las medidas preventivas, correctoras y compensatorias y el plan de vigilancia del EsEA. Este esfuerzo de concreción sería especialmente importante en el caso de las áreas de ejecución sin planeamiento de desarrollo.

*Cuarto.* De acuerdo con el Decreto 211/2012 por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, el ayuntamiento debe tener en cuenta que, una vez aprobado el PGOU, está obligado a realizar las siguientes notificaciones a la Dirección General de Administración Ambiental de la DFG:

— La disponibilidad por medios electrónicos de la documentación contemplada en el artículo 15 de dicho Decreto. En cumplimiento de dicho artículo, esta notificación se extenderá también a las administraciones públicas afectadas, al público interesado y al público en general.

— Si como consecuencia de la puesta en marcha del programa de seguimiento del PGOU se detectaran efectos adversos no previstos en la evaluación de impacto ambiental estratégica realizada, las medidas propuestas para su minimización en cumplimiento del artículo 16 de dicho decreto.

*Quinto.* Conforme a lo establecido en el artículo 25 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre de evaluación ambiental, esta declaración ambiental estratégica, se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*Sexto.* Esta declaración ambiental estratégica perderá su vigencia y cesará en la producción de los efectos que le son propios si, una vez publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, no se hubiera procedido a la adopción o aprobación del plan o programa en el plazo máximo de dos años desde su publicación.

San Sebastián, a 9 de julio de 2025.—El diputado foral de Sostenibilidad, José Ignacio Asensio Bazterra. (5537)

EK\CV GAO-I-2025-05537